

Tolpuddleko jaialdian sindikatuen indarra eta birtokiratzea

Ingalaterra hegoaldeko Tolpuddle herrian duela 180 urte sindikalgintzan aritzeagatik galeretara bidalitako langileak omenduko dituzte uztailearen 18tik 20ra artean Tolpuddle Martyrs Festival delakoan antzerki, mintzaldi eta kantuz. Britainia Handi osoko sindikalistei aurtengoan Trantsizioa aldarrikatzen duen ibilaldia batuko zaie.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

MAIATZAREN 1EAN SINDIKATUEN eslogan klasikoen aldamenean Ipar Euskal Herrian ekonomiaren eta gizartearen birtokiratzea ipini dutela jakinda harrিতuko zen bat baino gehiago. Bizi! elkartekoen *harrikada* izan ote den? Hala bada, ez dira bakarrak. Ingalaterran sindikatuek uda orotako hitzordu famatua den Tolpuddleko Martirien Jaialdia ospatuko dutenean, bertara txikiagotzearen aldeko ibilaldian oinez hurbilduko zaizkienekin egingo dute topo. Hazkunde edo garapen ereduaren eztabaida muturra sartzen ari da ezker osoan.

Tolpuddle Pilgrimage bataiatu dute gutxiagotzearen aldeko erromesaldi laikoa. Uztailearen 10ean Plymoutheko portutik abiatuta, hamar egunez egingo dute Dorset eskualdean dagoen Tolpuddlera. Hemen aspalditik biltzen dira Ingalaterrako sindikalista eta ezkerreko politikariak duela 180 urte langileen eskubideen alde ahalegintzeagatik errepresaliatu zituzten sei laborariak, *Tolpuddle Martyrs* direlakoak. 1834ko kontu haiek ez dira hain zaharrak, geroago ikusiko dugunez.

Sindikalisten oihu, abesti eta aldarrikapen ezagunekin nahasiko dituzte trantsizioaren aldeko erromesek beste berriagoak. *Stir* magazine alternatiboaren zuzendari Jonny Gordon-Farleighk idatzi due-

nez *New Internationalist* gunean, “ibilaldiak lotuko ditu Dorseteko laborantzako langile famatu haien historia eta gure elikadura sistema berriro asmatzearekin batera etorkizuna elikatzeke modua aldatzen ari diren kooperatiba eta auzolanean burututako beste ahaleginekin”.

Garapen eredu alternatiboetan erreferentzia den New Economics Foundation (NEF) elkarteak aipatzen duen *Great Transition* delakoaren arrastoak erakutsi nahi dituzte ibilaldian barrena, denetako bilkura eta jarduerekin. Lekuko nekazarien ekoizpenez elikatzeaz gain, haiekin mintzatuko dira agro-industria globalizatuari aurre egiteko sortzen ari diren formulez.

Gordon-Farleighk iragarri du erromes berriok sustatuko dituztela “herrietan sortutako trantsizio taldeak: energi kooperatibak, kreditu elkarteak, auzolanean landutako baratzeak. Horiek ari baitira saiatzen gure sistema ekonomikoa birtokiratzen [re-localize ingelesez], petrolioaren gailurrari, klimaren aldaketari eta finantzen hondamendiari erantzuteko”. Ibiltariak topo egingo dute oinarritzko errenta unitertsalaren aldeko ekitaldiekin eta laborariz bezala kaletarrez osatutako kontsumo taldeen sorrerarekin.

Bidean landatuko dituzte Tolpuddleko Martiriei beren bileretan

Duela 180 urteko sindikalista errepresaliatuen oroimena zaintzen duen Tolpuddle Martyrs erakundearen gunetik hartutako irudi honek erakusten du uztaileko herrian antolatzen den jaialdiaren tarte bat, sindikatuen manifestaldia: Dorset eskualdeko ferro-karriletako sindikalisten banderolan Tolpuddleko nekazari ekintzaileak ageri dira bildurik herrian zen eta gaur oraindik den platanondoaren gerizpean. Banderolak dio: “Goazen langileok oro aurrera. Elkar gaitzen gogor baina baketsu gizon baten bihotza bezala. Orduan milioika jenderen interesak ez dituzte sakrifikatuko gutxi batzuen irabazien mesedetan”. 1834an bezala, aktualitate dira obreroen lan baldintzen okerragotzea, baserriar txikien ezin bizia, ugazaben irabazi izugarriak, aberatsenek jabego publikoak ostuz egindako pilaketa, estatu agintarien eta aberatsen arteko konplizitatea, eskubide zibil eta sindikalen zanpaketa...

geriza eskaini zien platanu (*Platanus occidentalis*) zaharraren kimuak.. “Horiek deitzen ditugu ‘antolaketa-zuhaitzak’. Irudikatzen dute aire librean elkartzeko daukagun beharra, antzina Gernikako Arbola [jatorrizkoan testuan euskaraz dator] lekuko politikarako zena edo berrikiago hondamendiaren osteko Argentinan auzuneetako batzarrek”.

Birtokiratzearen ikur txiki gisa, erromesek lekuko garagardoa edango dute, XIX. mendeko formula batez “mikro-garagardogile” batek egina Martirien omenez Australiako lupulua ere erabiliz. Australiara bidali baitzituzten preso sei luginak 1834 hartan.

Herri ondasunen lapurren morroi

1834ko otsailaren 24 goizean etxetik irten zen George Loveless, eta ez zen itzuliko hiru urte berandua go arte. Georgen ondoren, klandestinitatean lan egitea elkarri zin egina ziotela leporatuta, atxilotu zituzten haren anaia James eta beste lau gehiago, sei denetara. Haien benetako krimena zen baserrietako obreroen sindikatuaren zelula bat antolatatu izana, lurjabe handiek ordaintzen zuten jornal miseriazkoa handitzen ahalegintzeko.

Ingalaterrako lurjabe handiak urduri zebiltzan laborari txiroen



mugimenduen beldur. Frantziako iraultza liskartsua zeukaten oroimean. Ingalaterran bertan XIX. mende hasieran baserritar matxinoek behin eta berriro erreak zituzten ugazabek uzta merkeago egitearren erositako makina berriak *Swing Rebellions* deituetan. 500 kondenatu zituzten itsasoaz haraindiko presondegiatara, 19 urkatu.

Istorio honen testuingurua ulertzeko jakin behar da aurreko mendeetan aristokrazia ingelesak burututako lapurreta handiarekin lotuta zegoela. *Enclosure* deitu zitzaion lapurretari, hesitzea. Geroxeago Espainian *Desamortización* delakoa-ekin *terratententee* egingo zuten gauza bera. Baserritar txikiak ez zirelakoan kapaz lurrari behar beza-

la etekina ateratzeko eta agintariak erabaki zuten herri-lurrak oro saltzea, soro, larre eta baso. Haiek ganaduen bazkarako bezala egurretarako betidanik erabiltzen zituzten nekazari txikiak miseriara kondenatu zituzten, milaka asko behartu hirietako proletargoan murgiltzera, lurjabe handiak makinak sartzen hasi lurgintzan, gaur Ingalaterrak –Espainiak bezala– daukan jabego kontzentrazio handia eragin.

Ezinegona zegoen Dorset eskualdean ere. Herriko jauntxoaren belarrietara iritsia zen platano handi baten gerizpean biltzen zirela. Irudi zaharretan ageri dira sei gizonak zuhaitzaren inguruan solasean eta beste bat enborraren atzetik espioi lanean zelatan jarria. XVIII.

mendetik sedizioa eta konspirazioa debekatzen zituzten lege bat baliatuz atxilotu zituzten, Australiako presondegi batera bidaltzeko.

Sei klandestinoak epaitu zituen epaimahaiak lehendakari zeukan epailez gain baroi lurjabe zen Williams bat. Argi utzi zuen errudunak zigortzea bezain inportantea izango zela bazterrak inarrosiko zituen eskarmentua ezartzea. Australian zazpi urtez lan behartuetan preso egotera kondenatu zituzten.

500 kondenatuz goiti zeramatzaten itsasontzi beldurgarriak, presondegiatako tratua gaiztoak, gaixotasunak... pixkanaka iritsi ziren haien albisteak Ingalaterrara. Sindikatuek erreakzionatu zuten jende bilketa handiekin.

Kronikek diote Londresko elkarretaratze batean 100.000 jende bildu zela, haiek zaintzeko gobernuak bidalirik 5.000 polizia eta militar. Sei martirientzako barkamena eskatuz 800.000 sinadura ere bildu zituzten. Hiru urteren buruan lortu zuten haiek etxeratzea. Sei laborariek jarraitu zuten eskubide zibil eta sindikalen aldeko borrokan. Jauntxoek ez zituzten bakean laga. Bat ez beste guzतिक herritik alde egin behar izan zuten.

Toldpudden urte luzez hitzaldi politikoak esan izan dira. Azken urteotan hiru eguneko jaialdi bihurtu dute. Ingalaterrako ezker politikoaren eta sindikalismoaren pulstua markatzen du hein batean. Aurten trantsizioaren aldeko mugimenduak dakarren indar berria txertatuko diote. Baionan maiatzaren 1ean bezalatsu. ■







**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira